

THAILANDIA

Junta Militarrek aginteari eusten dio azken kolpearen hirugarren urteurrenean

 POLITIKA / joseangel.oria@gaur8.info

Azken estatu kolpearen ondorengo laugarren urtea hasi berri dute thailandiarrek, baina militarrek agintetik kentzeko itxaropen handirik gabe. Uniformedunen Gobernuak ez du baztertzeko datoren urterako iragarrita zeuden hauteskundeak berriz atzeratzea, maiatzaren 22an erietxe militar batean izan zen atentatuaren aitzakiarekin.

Maiatzaren 22an bete ziren hiru urte Thailandiako militarrek beren azken estatu kolpea eman zutenetik. Ez Gobernu militarrek ez oposizio alderdiek ez zuten urteurrena zela-eta ekitaldi berezirik antolatu. Hala ere, ikasleen

mobilizazioen sehaskatzat hartu izan den Thammasateko Unibertsitateko zenbait irakasle elkartu ziren diktadura eta errepresioa salatzen. «Errepresioa oso eraginkorra da. Herria isilarazteko azken hiru urteotan hartu diren neurri guztiekin, inor ez luke harritu behar Junta Militarren aurkako benetako oposiziorik ez izateak», adierazi zien kazetariei

Prayut Chan-O-cha jenerala (erdian), maiatzaren 12an Bangkok hiriburuan egindako ekitaldi ofizial batean.
GAUR8

Saowanee Alexander hizkuntzalaritza irakasleak.

Thailandiako militarrek garai hartako ezegonkortasun politikoa erabili zuten aitzakia moduan beren estatu kolpea zuri-tzeko. Ustelkeriari aurre egiteko zenbait erreforma egitea ezinbesteko zela ere esan zuten kolpistek. Hiru urte geroago, ekintzaileek zein parlamentariak salatzen dute giza eskubideak ez direla batere errespetatzen Asiako hego-ekialdeko herrialdean eta demokrazia itzultzeko exijitu dute, nazioarteko berri agentziei egindako adierazpenetan.

Inolako disidentziarik ez dute onartzen uniformedunek. Ehunka ekintzaile, kazetari eta politikari atxilotu dituzte urteotan, eta kutsu politikoa duten ekitaldi guztiak debekatuta daude. Zentsura erabatekoa da.

Iazko abuztuan bizitza politikoan eragiteko militarren gaitasuna sendotzen duen Konstitu-





Saroj Keokajee teniente jenerala da Thailandiako Poliziako burua. Irudian, maiatzaren 22an erietxe militar batean egin zen atentatuaren ondoren kazetariekin hizketan. Lillian SUWANRUMPHA | AFP

zio berria (hemeretzigarrena 1932az geroztik) onarrarazi zuen Juntak, erreferendum bat antolatuta. Herritarren %61ek baiezkoa eman zioten militarrek mahaiaren gainean jarritako testuari, %38ek ezezko botoa ematen zuen bitartean.

Esanguratsua da militarrek kolpea eman zutenean agintean zegoen Pheu Thai ("thailandiarrena") alderdi aurrerakoa nagusi den ipar-ekialdean ezezkoak irabazi zuela, hegoaldeko eskualde musulmanetan gertatu zen moduan. Militarrek egin dako Konstituzioaren aurkakoei argudiatu zuten testuak Gobernu eta hautetsiak ahultzen dituela, burokratek menderatutako erakunde eta militarren boterea indartzen duen bitartean. Punturik gatazkatsuenak zioen Senatuak legeak eta Konstituzioari egin nahi zaizkion erreformak geldiarazteko gaitasuna izango duela, eta gainera horrek erabakiko duela Ustelkeriaren Aurkako Batzordean eta Konstituzio Auzitegian nortzuk esku hartuko duten.

Junta Militarrek esan zuen Konstituzio hori onartzea ezinbestekoa zela demokrazia berre-

zartzeko. Hasiera batean agindu zuen aurten egingo liratekeela hauteskundeak, baina deialdia atzeratu du eta une honetan dio 2018an egingo direla.

«SISTEMA IA DEMOKRATIKOA»

Prayut Chan-O-cha jeneralaren erregimenak oinarritzko askatasunak bortxatzen ditu, Human Rights Watch gobernuz kanpoko erakundeak salatu duenez. New Yorken egoitza duen erakundeak uste du militarrek menderatzeko moduko «sistema ia demokratikoa» bultzatzen ari direla. Brad Adams eleduak erantsi du egungo Gobernuak ez duela onartzen inolako kritikarik, ezta era baketsuan eginda ere, jarduera politikoa debekatzeko duela, hedabideei zentsura ezarri diela eta adierazpen askatasuna etengabe bortxatzen duela. «Juntak agindu du esku-bideak errespetatuko dituela eta demokrazia berrezarriko duela, baina herritarrentzat zein nazioarteko komunitatearentzat adierazpen horiek gustu txarreko txantxa bat baino ez dira», Adamsek esan duenez.

APHR Asiako Hego-Ekialdeko Parlamentarien Elkarteak «atxi-

loketa arbitrarioak», disidentziak jasandako jazarpena eta Juntak ezarritako jarduera politikoen debekua salatu ditu. «Thailandia bide okerrean doa», adierazi du Charles Santiago APHRko presidente malaysiarra: «Gidariaren eserlekuan militarrek jarrita eta datozen urteetan zeregin garrantzitsua izango dutela bermatzen dien Konstituzio berriarekin, Thailandia benetako demokraziara itzultzetik gero eta urrutiago dago». Horregatik eskatu die militarrei agintea gobernu zibil bati lehenbailehen itzultzeko.

Hauteskundeak egin izan direnean, bi alderdiren artean bo-

toen %83 biltzen zituzten. Gauza batean bat datoz: Thailandiak aurrera egin dezan, demokrazia egonkor bat behar da, eta horretarako militarrek azken hamarkadotan izan duten zeregin politikoa albo batera utzi beharko lukete.

«Herritarren borondatea errespetatzen ez duten militarren gehiegikeriek eragin dute gatazka politikoa», laburtu du egoera Phumtham Wechayachai Pheu Thai alderdiko idazkari nagusiak. Alderdi Demokrataren ezaugarri nagusia tradizioei eusteko nahia da, eta, militarren eta zibilen arteko gatazkari dagokionez, aurrera begiratu behar dela diote.

2006ko iraila aipatzen dute analistek egungo gatazkaren sorburu moduan. Garai hartan Pheu Thai Thaksin Shinawatra zen lehen ministroa. Nazio Batuen New Yorkeko egoitzan zegoela baliatuz, militarrek agintea bereganatu zuten. Abhisit Vejjajiva Alderdi Demokratiko burua lehen ministro izango zen 2008tik 2010era. Bere ustez, Thaksin eta Estatuaren arteko gatazkak ez du atzera bueltarik eta horregatik esaten dio beste

Militarrek ezegonkortasun politikoa erabili zuten aitzakia moduan beren estatu kolpea zuritzeko. Ustelkeriaren aurkako erreformak egitea ezinbestekoa zela ere adierazi zuten

Disidentziarik ez dute onartzen militarrek. Ekintzaile, kazetari eta politikariak atxilotu dituzte, eta kutsu politikoa duten ekitaldiak debekatuta daude. Zentsura erabatekoa da



alderdiari buruzagia izandakoa-
ren eragina atzean utzi behar
duela, herrialdeak aurrera egin
dezan.

Yingluck Shinawatra Thaksi-
nen arreba politikan hasiberria
zen 2011n, baina irabazi egin zi-
tuen urte hartako hauteskunde-
ak eta Gobernua osatu zuen.
Baina aurkako indarrek Exekuti-
boaren kontrako manifestazio-
ak antolatu zituzten, herrialdea-
ren jarduera ekonomikoa guztiz
ahulduz. Testuinguru hori aitzia-
kiatzat hartuta, 2014ko maiatza-
ren 22an estatu kolpea eman zu
ten militarrek, beste behin.

BERRADISKIDETZE PROZESUA

Junta Militarrek demokrazia be-
rreskuratu nahi duela esaten du,
eta Thaiandiaren Berradiskide-
tzerako Batzordea eratu zuen
horretarako. Lau fase dituen egi-
tismo bat jarri dute abian. «Pro-
zesua arrakastatsua izatea espe-
ro dugu. Abian jarri ditugun
politika guztiak herrialdearen
garapenaren oinarri izango dira.
Dena ondo ateraz gero, Thailan-
dia demokrazia sendo bat izan-
go da», adierazi dio Efe berri
agentziari Weerachon Sukond-
hapatipak Armadako eledunak.

Phue Thai alderdiak berak ere
esku hartu du militarrek antola-
tu dituzten bileretan, baina gar-
bi esaten du bide horretatik ez
dela aurrera egingo, eta erakun-
de inpartzial bat eratu beharko
litzatekeela, alderdikideen aur-
kako jazarpena ikusten baitu
militarren egungo jardueran:
Yingluck Shinawatrari «axolaga-
bekeria» delitu bat leporatu dio-
te epaileek (hamar urteko kar-
tzela-zigorra ezar diezaioke-
te) eta bost urtetan kargua betetze-
ko gaitasunik gabe utzi du Ba-
tzar Nazionalak, kolpistek boz-
ketarik gabe izendatutako
kideez osatutako erakundeak.

Batzar Nazionalarekin gerta-
tzen dena pasatzen da Senatu
berriarekin ere: Junta Militarrek
aukeratuko ditu 250 senatariak
eta erakunde horrek lehen mi-
nistroaren izendapenean esku
hartuko du, «trantsizioarekin jar-
raitu ahal izateko», uniforme-
dunek beraiek esan dutenez.

Phumtham Wechayachaik
garbi dauka militarrek aginteari
eutsi nahi diotela, kosta ahala
kosta, eta Senatu berriak gataz-
kak baino ez dituela eragingo.

Abhisit Vejjajivaren ustez ere
onartezina da militarrek ezarri-

tako Senatuak «prozesu politi-
koa gidatzeko gaitasuna izatea»,
gauzak horrela eginez gero ez
baita ez demokraziarik ez berra-
diskidetzerik lortuko.

Junta Militarrek agindu izan
du datorren urtean egingo dire-
la hauteskundeak, baina aste
honetan bozketa berriz atzera-
tzeko aukera aipatu du, maia-
tzaren 22an Bangkok hiriburuko
erietxe militar batean egindako
atentatuaren eraginez. Egun
hartan lehergai baten eztandak
25 zauritu eragin zituen. Weera-
chon Sukhonpatipak eledunak
adierazi du egoera ezegonkorra
baldin bada, hauteskundeak
atzeratzea erabaki dezaketela.

Hegoaldeko Narathiwat
probintzian
independentistek
egindako atentatu batek
utzitako txikizioa.
GAUR8

**Iazko abuztuan bizitza politikoan eragiteko
militarren gaitasuna sendotzen duen
Konstituzioa onarrarazi zuen Juntak. Testuari
herritarren %61ek eman zioten baiezkkoa**

**«Gidariaren eserlekuan militarrek jarrita eta
etorkizunean zeregin inportantea izango dutela
bermatzen dien Konstituzioarekin, Thailandia
demokraziara itzultzetik urruti dago»**

HEGOALDEKO NEGOZIAZIO PROZESUA, RAMADANA BUKATZEAN

Thailandiako hegoaldean
azken hilabeteotan izan
diren eraso armatuak
«bakea eta
egonkortasuna lortzeko
atariko urratsak» dira,
Gobernuarekin hizketan
ari den matxinoen
plataformak Efe
agentziari esan dionez.
«Bake prozesu bat abian
jarri aurretik ohikoa
izaten da indarkeria
agertzea», adierazi du
Abu Hafez Al-Hakim
Mara Patani
plataformako eledunak.

Hegoaldeko Pattani,
Yala eta Narathiwat
probintziak
Thailandiatik ateratzea
eta estatu propioa
eratzea nahi dute bertako
bost talde armatu
musulmanek. Horien
ordezkariak 2014an hasi
ziren Bangkokeko
kolpistekin
harremanetan. Malaysiak
egiten ditu bitartekari
lanak.

Thailandiako
hegoaldeko
independentistek
2004an berrartu zuten
borroka armatua.
Geroztik 6.700 hildako
izan dira, zibilak
gehienak, hedabideen
arabera. «Bi urteko
elkarriketa mantsoaren
ondoren, elkarren artean
konfiantza eraikitze-
ko faserara iritsi gara.
Gatazkarekin zerikusirik
ez duten zibilentzat
‘segurtasun eremu’ bat
sortu nahi dugu», esan
dio Eferi matxinoen
eledunak, Malaysiako
puntu batetik.

Ekainaren 25ean
elkartuko dira berriz
agintari kolpistekin,
ramadan musulmanen
hilabete sakratua
bukatzeko alegia.